



GIZARTE ZERBITZUEN ESPARRUAN DATU LAGAPENAK DATU-BABESAREN ARLOKO ARAUDIRA EGOKITZEN DIREN GALDETUZ XXXXX-(E)KO UDALAK EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2010eko ekainaren 8an Xxxxx-(e)ko Udalak bidalitako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkian honakoa adierazi zuen:

“Udalek, aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak arriskuan edo babes gabezia dauden haur eta nerabeak babesteko eskumenak dituzte (3/2005 Legearen 104. artikulua). Eskumen horietaz baliatzeko, Legeak III. Tituluko II. Kapituluaren definitzen du zein den administrazioak eman beharreko babesa arrisku eta babesgabezia egoeretan (48. artikulua eta hurrengoak). Gainera, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legeak derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzean parte hartzeko eskumena aitortzen die udalei”.

Gauzak horrela, udalek, gure eskumenak gauzatzean, behean adierazitako esparruetako informazioa behar izaten dugu esku hartzea beharrezkoa den ala ez zehazteko edo esku hartzearen ildoak finkatzeko:

- 1.- Aldundia.
- 2.- Hezkuntza.
- 3.- Osasuna.

DBLOren 21. artikuluekin bat, uste dugu aldundien eta udalen arteko datu-lagatzeak baimenduta daudela, gai edo eskumen bererako egiten direlako.

Hezkuntzaren (ikastetxe publikoak, era guztietako pribatuak, agian administrazio publiko ez direnak) eta osasunaren esparruei (normalena da Osakidetza izatea) dagokienez, ordea, lehen adierazitako eskumenak gauzatu ahal izateko, nahitaez eskatu behar diegu informazioa adin txikiko baten kasuan esku hartu behar badugu. 3/2005 Legearen 21. eta 25. artikuluek finkatzen dute zein profesional/agintarik ... jakinarazi behar dien toki erakundeei edo administrazio publikoari haurrenganako tratu txarrak ekar dezaketen egitateak ... eta, “hezkuntzari dagokionez”, absentismoarekin edo



eskolaratzearekin zer ikusia duten egitateak.

Hori guzti hori kontuan hartuta, honakoa galdetu nahi dugu:

1.- Ea aldundiaren eta udalen arteko datu-lagatzeak datu-babesaren arloko araudiaren arabera diren, eskumena bera izanik. Eta ea adin txikikoa edo bere legezko ordezkaria jakinaren gainean jarri behar diren.

2.- Ea 3/2005 Legearen 21. eta 25. artikulua nahikoa lege gaikuntza diren hezkuntza/osasun arloek udalari datuak lagatzeko, datuen titularraren (adin txikikoa edo, halakorik badago, haren legezko ordezkaria) adostasun beharrik gabe. Edo ea badagoen lege gaikuntzarik datu horiek adostasunik gabe lagatzeko.

3.- Datu-lagatzeak legezko gaikuntzarik badu, ea datu-lagatzearen berri eman behar zaio nahitaez adin txikikoari ala haren legezko ordezkariari. Datu-lagatzearen berri eman behar bazaio, nor da fitxategiaren arduraduna, hau da, nork egin behar du datu-lagatzearen komunikazioa".

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Xxxxx-(e)ko Udalak egindako kontsulta zenbait datu-lagatzeren zilegitasunari buruzkoa da. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3.i artikulua dago jasota datu-lagatzearen zer den dioen definizioa: "interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematea".

Planteatzen den lehenengo galdera da "ea aldundiaren eta udalaren arteko datu-lagatzeak datu-babesaren arloko araudiaren arabera diren, eskumena bera izanik. Eta ea adin txikikoa edo bere legezko ordezkaria jakinaren gainean jarri behar den.

DBLOren 11. artikulua arautzen du izaera orokorrarekin zer den datu-lagatzea, datuen titularraren adostasuna nahitaezkoa dela xedatzen du eta salbuespenak ere finkatzen ditu.



DBLOren 21. artikulua arautzen ditu administrazio publikoen arteko datu-lagatzeak, eta dioenez ez da adostasunik behar eskumen berberez edo gai berberei buruzko eskumenez baliatzeko bada.

"Administrazio publikoek haien eskumenez baliatzeko bildutako edo landutako datu pertsonalak ezin izango zaizkie komunikatu beste administrazio publiko batzuei bestelako eskumenez edo gai desberdinei buruzko eskumenez baliatzeko bada. Salbuespen bat dago eta da komunikazioa helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako egitea".

Goiko artikulua horretatik, datuak adostasunik laga daitezkeela, ondoriozta dezakegu. DBLOren idazkeran ezezko esaldia erabili da hori adierazteko, baina DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 10.4 c) artikuluko idazkera argiagoa da. Bertan dio datu pertsonalak lagatzea, interesdunaren adostasunik gabe, zilegi izango dela administrazio publikoen arteko lagatzea bada eta

"c) Eskumen berdin-berdinak gauzatzeko komunikatzen direnean datuak, edo gai berei buruzkoak direnean."

Udalak egin digun kontsulta ikusita, informazio-trukearen atzean dagoen gaia zerbitzu sozialei buruzkoa dela pentsa dezakegu. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Eusko Legebiltzarraren Legearen 27.2 artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendua eta egitura arautzen ditu eta honakoa xedatzen du:

"Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten zerbitzuak honela egituraturik egongo dira:

Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak, 22.1 artikuluan araututa daudenak. Zerbitzu horiek bide emango diete erabiltzaileei gizarte-zerbitzuen sistema osora iristeko, eta autonomiaren, gizareratzearen eta larrialdien edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzun egongo diete, eta batez ere arrisku-egoeren prebentzioari erreparatuko diote. Udalen gizarte-zerbitzuei dagokie zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea, Eusko Jaurlaritzaren esku egongo den telelaguntza zerbitzua izan ezik, III. tituluko I. kapituluaren ezarritako eskumen-banaketaekin bat etorrira.

Bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak, 22.2 artikuluan araututa daudenak. Bazterketaren, mendetasunaren edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzuna emango diete. Foru-aldundien gizarte-zerbitzuei dagokie zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea, eta hala badagokie, Autonomia Erkidegoaren eremuko gizarte-zerbitzuei, III. tituluko I. kapituluaren ezarritako eskumen-banaketaekin bat etorrira."

Artikulua irakurri eta gero atera dugun ondorioa da gai horren gaineko eskumena hainbat euskal administrazio publikok partekatzen dutela, eta, hain zuzen ere, horrexegatik da beharrezkoa DBLOren 21.1 artikuluan eta Legea garatzen duen Erregelamenduaren 10. artikuluan jasotako salbuespena esparru honetan egiten diren datu-lagatzeak egiteko.

Baina informazioa partekatzeko aukera izateak bat etorri behar du abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 43. artikuluan jasotako koordinazio betebeharrarekin.



“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak elkarrekiko lankidetzaz eta koordinazio-betebeharraren arabera jardungo dira sistemak eraginkortasunez eta eragimenez funtziona dezala bermatzeko.”

Nahiz eta horrelako kasuetan informazioa partekatzeko legezko gaikuntza bat egon, aipatu behar da badagoela kontuan hartu beharreko beste alderdi bat, datu-babesaren arloko oinarritzko printzipioa dena, eta printzipio hori datuen kalitatearen printzipioa da. DBLOren 4. artikulua finkatzen du. Hona hemen artikulua lehenengo idatz-zatiak xedatzen duena:

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.”

Printzipio horren arabera, datu egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak baino ezin izango dira laga.

Udalak egindako galderen artean informazio eskubideari buruzko bat ere bazegoen, hau da, ea adin txikikoa edo haren legezko ordezkaria administrazioen artean egindako datu-lagatzearen jakitun egon behar ziren. DBLOren 5. artikuluko 4. idatz-zatiak xedatzen du informazioa emateko betebeharra. Hona hemen:

“Izaera pertsonaleko datuak interesdunarengandik jaso ez direnean, fitxategiaren arduradunak edo horren ordezkariak esanbidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko dio interesdunari, datuak erregistratu eta hurrengo hiru hilabeteetan, tratamenduaren edukia, datuen jatorria eta artikulua honen 1. idatz-zatiko a), d) eta e) letretan jasotakoaren inguruan, salbu eta interesdunari aurretiaz eman zaionean horren gaineko informazioa.”

Hala ere, betebeharrak badu salbuespen bat. Salbuespena 5. idatz-zatian dago jasota:

“Aurreko idatz-zatian xedatutakoa ez da aplikatuko, legeren batek esanbidez horixe ezartzen duenean, tratamenduak xede historiko, estatistiko edo zientifikoak dituzten, edo Datuak Babesteko Agentziaren zein horren pareko autonomia-erkidegoko erakundearen arabera ezinezkoa denean interesdunari informazioa ematea, edo neurritz kanpoko ahaleginak egin behar direnean, interesdunen kopurua, datuen antzintasuna eta izan daitezkeen konpentsazio-neurriak kontuan hartuta”.

DBLOren 5.5 artikulua xedatutakoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/CE Zuzentarauaren 11.2 artikulua xedatutakoaren transposizioa da. Hona hemen manu horrek xedatutakoa:

Datuak babesteko Espainiako Agentziak esan du, 60/2004 txostenean, 5.5 artikulua jasotako salbuespena 95/46 Zuzentarauaren arabera ulertu behar dela, eta honako ondorioa ateratzen du: “15/1999 Lege Organikoaren 5.5 artikulua xedatutakoaren interpretazio koherentea egin nahi bada, 95/46/CE Zuzentaruaren xedatutakoa hartu behar da kontuan, han dagoelako 5.5 artikulua xedatutakoaren jatorria; eta, beraz, ulertu behar da ukituari informatzeko betebeharra ez dela bete beharko datu-tratamendua edo lagapena lege batek arautzen badu berariaz.



Hala ere, argitu behar dugu 5.5. artikulua xedatutakoa ez dela bete beharko aztertzen ari garen bezalako kasuetan, horrelakoetan datu pertsonalen tratamenduak edo datu-lagatzeak berariaz daudelako jasota lege batean; baina, ez da salbuespenik onartuko, nahiz eta lege batek baimendu edo gaitu datu-lagatzeak, lege horrek ez badu berariaz jasotzen baimena artikulatuan zehar; eta hori dena, kontuan hartuta gerta daitekeela horrelako kasuetan lagapenak 15/1999 Lege Organikoaren 6.2 eta 11.2 a) artikuluetan xedatutakoaren babesa izan dezaketela".

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak txosten horretan aztertzen duen kasua da Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak udal erroldako datuak atzitzeari buruz. Atzipen hori Toki Araubidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Zazpigarren Xedapen Gehigarrian dago aurreikusita. Hona hemen arauak dioena:

"Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunen eta atzerritarrak gizarteratzeko Lege Organikoan ezarritako eskumenak gauzatzeko soil-soilik, hain zuzen Espainian dauden atzerritarrak kontrolatzeko eta bertan egotearen gaineko eskumenak, udalerrietako erroldetan dauden atzerritarren errolda-inskripzioetako zehaztasunetara atzipenak egin ahal izango ditu Poliziako Zuzendaritza Nagusiak, batez ere bide telematikoak erabiliz".

Halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak honakoa xedatzen du 2004ko urriaren 8ko Ebazpenean honakoa dio:

"5.5 artikulua dio informatzeko betebeharra ez dela bete beharko legeren batek berariaz aurreikusten badu. Artikulu horrek xedatutakoa hitzez hitz interpretatuz gero, ulertu behar da informatzeko obligazioaren salbuespena lege batek agindu behar duela, kasu honetan aurreikusitako baldintzak betetzeko. Baina, 95/46 CE Zuzentarauaren transposizioa egin duen 15/1999 Legearen 11.2 artikulua dio ez dagoela informatu beharrik helburu estatistikoak edo ikerketa historiko edo zientifikoetarako helburuak daudenean tartean edo neurriz kanpoko ahaleginak egin behar direnean edo erregistroa edo hirugarren bati egin beharreko komunikazioa legeren batek berariaz agintzen duenean. Beraz, salbuespena ulertzeko, Zuzentarauak diotenaren arabera interpretazioa egin behar da, eta informatzeko obligazioa bertan behera geratuko da lege batek berariaz jasotzen badu".

Aزتtertzen ari garen kasuan ez da betetzen DBLOren 5.5 artikulua jasotzen duen salbuespena, ezen udalak aldunditik jasotzen dituen datu pertsonalak, titularren adostasunik gabe, ez baitatoz lege batean berariaz jasotako datu-lagapen batetik, DBLOren 21. artikuluan jasotako legezko gaikuntza batetik baizik.

II

Xxxxx-(e)ko Udalak egiten duen bigarren galdera honakoa da:

"Ea 3/2005 Legearen 21. eta 25. artikuluek nahikoa lege gaikuntza diren hezkuntza/osasun arloek udalari datuak lagatzeko, datuen titularraren (adin txikikoa edo, halakorik badago, haren legezko ordezkaria) adostasunik gabe. Edo ea badagoen lege gaikuntzarik datu horiek adostasunik gabe lagatzeko".



Lehen ere esan dugunez, datu-lagatzeak egiteko arau orokorra adostasuna da (BDLOren 11. artikulua), baina salbuespena batzuekin. Salbuespen horietako bat da 21. artikulua aipatzen duena; baina orain aztertzen ari garen kasuan 11.2 a) artikuluan jasotakoa interesatzen zaigu, horrek adostasunik gabeko lagapenak egiteko aukera ematen baitu:

“Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Beraz, segidan aztertuko dugu ea kontsulta-egileak aipatutako artikulua lagapena egiteko nahikoa gaikuntza diren izatez. 3/2005 Legearen 21. artikulua erakundeen arteko lankidetzari buruzkoa, eta bertan honakoa xedatzen da:

“Osasun-zerbitzuek eta osasun arloko langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei jakinarazi behar dizkiete, edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari edo epaileari, haurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo arrisku egoera ekar ditzaketen egitateak, eta horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak helarazi beharko dizkiete; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko.”

Bestalde, 25. artikulua honakoa dio:

“1.– Baldin eta agintariek edo herritarrek jakiten badute derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adinean dagoen haur edo neraberen bat eskolaratu gabe dagoela edo, arrazoibiderik eman gabe ez dela eskolara joaten, eskumena duten herri-agintariei jakinarazi beharko diete, batez ere Hezkuntza Administrazioako agintariei, Toki Administrazioako erakundeei eta ministerio fiskalari, haurra edo nerabea eskolaratzeko, edo eskolara joanarazteko, beharrezkoak diren neurriak har ditzaten.

2.– Halaber, hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete haurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera ekar dezaketen egitateak, eta halaber adierazi beharko dizkiete horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehentasunezko interesak edukiko dira kontuan.”

Bi artikulua horiek irakurrita, ateratzen dugun ondorioa da badagoela nahikoa legezko gaikuntza administrazioa arlo horretan dituen eskumenez balia dadin, eta administrazioak behar duen hezkuntza nahiz osasun arloko informazioa eskura dezan, titularren adostasun beharrik gabe; eta informazio hori emango diote hezkuntza zentroen titularrek eta bertako langileek, osasun zerbitzuen titularrek eta pertsonal sanitarioak eta beste edozein agintariek edo pertsonak oro har. Aipatu ditugun arauak baimena ematen dute adostasunik gabeko datu-lagatzeak egiteko administrazio eskudunei, eta komunikazio era askotako eragileek egin dezakete. Kontuan izan behar da lege testuak adin txikikoaren interesari ematen dion balioa. Zentzu horretan, 3/2005 Legearen 4. artikulua Legearen oinarritzko printzipio gisa jasotzen du eta 2. idatz-zatian honako aurreikuspena egiten du:



“Haurren eta nerabeen interes gorena, haien eskubideen babesa eta eskubide horien garapenaren bermea beste edozein interes legezkoen gainetik egongo dira.”

Hala ere, ezin dugu aipatu gabe utzi egin nahi diren datu-lagapenek datuen kalitatearen printzipioa bete beharko dutela beti, hau da, tratamenduaren helburua zein den halako datuak tratatu beharko direla: datu egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak.

Adin txikikoari edo haren legezko ordezkariari datu-lagapen horien berri eman behar zaien ala ez argitzeko, esan behar dugu goiko gogoeta juridikoetan aztertutako kasuetan ez bezala, kasu honetan bai sartzan dela jokoan DBLOren 5.5 artikuluan jasotako salbuespena, badaudelako datu-tratamendu horiek babesten dituzten berariazko legezko aurreikuspenak (3/2005 Legearen 21. eta 25. artikulua).

Aurreko gogoeta guztiak kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak honakoa ondorioztatu du:

ONDORIOA

Xxxxx-(e)ko Udalaren kontsulta-idazkian agertzen diren datu-lagatzeak ez daude datu-babesaren araudiarekin kontrajarrita, txosten honetan jasotako baldintzen arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko abuztuaren 9an